



2010-04-21EAN EGINDAKO EZ OHIKO OSOKO  
BILKURA

SESIÓN EXTRAORDINARIA DEL  
PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día  
21-04-2010

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Pedro Lasagabaster Armendáriz  
Zinegotziak

Dorleta Leceta Uribetxebarria  
Ander Agiriano Errasti  
Aitor Urrutia Oyanguren  
Carmelo Leceta Abasolo  
Juan Luis Merino Sanabria  
Ignacio Pierrugues Barberán

Idazkaria

Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, bi mila eta hamarreko apirilaren zazpian, arratsaldeko zazpietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Pedro Lasagabaster Armendariz alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, ez ohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez dira etorri Barandiaran jauna, eta Eraña eta Okaranza andreak.

En Eskoriatza, siendo las diecinueve horas del día siete de abril de dos mil diez , en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente D. Pedro Lasagabaster Armendariz, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten el Sr. BArandiarán y las Sras. Eraña y Okaranza



## **1.- GAIA GAI ZERRENDAN SARTZEA BERRESTEA.**

2010eko urtarrilaren 27an egindako osoko bilkuran “SANTA ANA KOMENTUKO KAPERA GIZARTE ETA KULTUR ERABILERETARAKO BIRGAITU ETA EGOKITZEKO 1. FASEA” proiektua eta Tokiko Enplegurako eta Iraunkortasunerako Estatuko Fondoaren kargura finantzatzeko baimena emateko eskatzea onartu ziren. Proiektua IMB Arquitectos SLP enpresak idatzi du eta 344.223,76 € gehi BEZaren %16ari dagozkion 55.075,80 €-ko aurrekontua du.

Eskaera eginda, Lurralde Lankidetzarako Estatu Idazkariaren 2010eko martxoaren 25eko erabakiz aipatutako proiektua Tokiko Enplegurako eta Iraunkortasunerako Estatuko Fondoaren kargura finantzatzeko baimena eman zen.

Tokiko Enplegurako eta Iraunkortasunerako Estatuko Fondoak sortzeko urriaren 26ko 13/2009 Errege Lege Dekretuko 15. artikuluak eskatzen du Udalek obren litzazioa hilabeteko epean hastea Lurralde Politika Ministerioaren webgunean Lurralde Lankidetzarako Estatu Idazkariaren erabakia argitaratzen den egunaren bihamarunetik kontatzen hasita. Erabakia 2010eko martxoaren 25ean argitaratu zen.

Hazienda batzorde informatzailearen diktamenik gabe quorumik izan ez zelako batzordean eta AJAKo (Antolakuntza eta jarduera araudiko) 82-3 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, Udalbatzarrak aho batez honako hau erabaki du:

BERRESTEA ondoren adieraziko den gaia osoko bilkura honetako gai zerrendan sartzea.

Gaia: “SANTA ANA KOMENTUKO KAPERA GIZARTE ETA KULTUR ERABILERETARAKO BIRGAITU ETA EGOKITZEKO 1. FASEA” PROIEKTUAN AURREIKUSITAKO OBRAK KONTRATATZEKO KONTRATAZIO PROZEDURA HASTEA ETA BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOAK ONARTZEA.

## **2.- “SANTA ANA KOMENTUKO KAPERA GIZARTE ETA KULTUR ERABILERETARAKO BIRGAITU ETA EGOKITZEKO 1. FASEA” PROIEKTUAN AURREIKUSITAKO OBRAK KONTRATATZEKO KONTRATAZIO PROZEDURA HASTEA ETA BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOAK ONARTZEA.**

2010eko urtarrilaren 27an egindako osoko bilkuran “SANTA ANA KOMENTUKO KAPERA GIZARTE ETA KULTUR ERABILERETARAKO BIRGAITU ETA EGOKITZEKO 1. FASEA” proiektua onartu zen. Proiektua IMB Arquitectos SLP enpresak idatzi du eta 344.223,76 € gehi BEZaren %16ari dagozkion 55.075,80 €-ko aurrekontua du.

Bertaratutako zinegotziek ezagutzen dute baldintza administratibo partikularren agiria, eta hitza emanda eztabaidea egon da proiektuarekin zerikusia duten gaiei buruz.



Ondoren hitzez hitz transkribatzen dira horrela egitea eskatu dutenen eta horiek idatziz eman dituzten zinegotzien parte hartzeak:

Pierrugues jauna:

*Gai zerrendako puntu honetan parte hartzearen arrazoia “Santa Ana komentuko kapera gizarte eta kultur erabileretarako birgaitu eta egokitzeko 1. fasea “proiektuarekin lotuta dago. Proiektua 2010eko tokiko enplegurako eta iraunkortasunerako estatuko fondoen kargura finantzatuko da.*

*Nire iritziz, eta proiektu hau izen horrekin izapidetu edo ez, momentu hau oso egokia da Santa Ana komentuko kaperan gizarte eta kultur erabileretarako egingo den areto berriarentzako beste izen bat aukeratzeko.*

*Herri bateko toponimia bertakoek egunez egun idatzitako dokumentua da, eta garaian garaiko kultur aroaren arabera eta hitzak erabiliz, bertan islatzen dira, besteak beste, historiako pasadizoak, ekonomia, lanbide tradizionalak, sineskeriak eta garai bakoitzeko ohiturak.*

*Toponimoak herri baten kultur ondarearen parte dira eta zentro zeremonialen, eliza eta komentu kolonialen, erroten eta edozein lekukotasun historikoren besteko duintasuna dute. Historiaren bihotzean bizi dira, iraganekoa izan zein egunero egiten dena. Alderdi askotako irudi bizi ugari irudikatzen dituzte.*

*Guztiok dakigu gure iragan hurbila ulertzeko bi modu daudela: gure garaiko ereduaz ezartzen duten gertaera handietan arreta ipintzea, historiaren nondik norakoa mailu kolpez moldatuz edota gizarte aldaketa handien gainetik gure herriaren sentimenduak eta jardun ona adierazten diguten natura, sineskeria, ohitura edo familia arrazoiengatik gertatzen diren gauza txikienetan konplizitatea bilatzea.*

*Zaldibar Eskoriatzako toponimoa da, baina, Olaeta edo San Juan Kale ez bezala, ez da belaunaldiz belaunaldi transmititu, ez idatziz ez ahoz. Hitzez hitzeko esanahia “zaldi ibarra” da.*

*Zaldibarko Zubia Eskoriatzak zuen hiru sarreretako bat zen bi errekek (Debak eta Bolibarrek) eta San Juan kaleko harresiak inguratzen zutenean. Gaur egun Santa Ana kalean taxi geltokia dagoen lekuaren zegoen; kalearen izena ere bertan zegoen moja (Mensedetakoak) komentuarekin lotuta dago. Zubiaren berri XIII. eta XIV. mendeen aurretik dugu, erreken gaineko zubiak eraikitzen hasi zireneko garaietatik, mojak Leteko Santa Luzia komentu-baserritik Eskoriatzara jaitsi baino askoz lehenago.*



*Arrazoi horiengatik guztiengatik, Udalbatzarrari proposatu gura diot proiektuari “gizarte eta kultur erabilera tarako Eskoriatzako Santa Ana komentuko kapera” deitu beharrean “ZALDIBAR ANTZOKIA” deitzea.*

Urrutia jauna:

*Hasiera batean nik 3 galdera egin behar nituen, baina, horietako bi erantzun dira. Hirugarrena hau da: ba al du kapera horrek inolako katalogaziorik?*

*(Bertaratutako inork ez du erantzun zehatzik eman)*

*(jarraitzen du) Gu, hor esaten den bezala, herriko eta inguruko biztanleen jarduerari eta bizi zari eragindo liokeen gune bat egitearen alde gaude.*

*Baina, E plana bozkatzerakoan esan genuen bezala, ekonomi ziurgabetasun momentu hautan beste proiektu eta inbertsio batzuk izan beharko lukete lehentasuna, batez ere, datorren urteetan udal ekonomia bideragarria egiteko balioko dutenak; eta ez, etorkizunean udaleko diru-kutxarako beste zama bat izango diren inbertsio handiak hastea.*

*Batik bat, gutxi erabilitako eta gure ustez gutxieneko proiekturek gabeko kultur ekipamenduak ditugunean, esaterako, museoa edo kultur etxea, eta benetako beharren balorazio teknikorik ez dugunean .*

*Edo proiektu honen hurrengo faseak zehaztu gabe daudenean. Diputazioarekin harremanetan jarrita, honako hau esan digute: ez dagoela ezer lotuta, eta lotzeko aukera bera ere zalantzan dagoela; txosten ekonomikoak eskatu zirela eta ez direla jaso; hori guzti hori badakitela eta ezagutzen dutela Alkateak eta Kultura zinegotziak, gutxienez, estatuko plana erabaki zen garaitik.*

Merino jauna: “Ezker Batua-Berdeak batzarkide talde-mistoko” Arantza Gonzalez Garcia batzarkideak Eskoriatzako Santa Ana erabilera askotako aretoari buruz idatziz eskatutako informazioari erantzunez Kultura Departamentuko Foru Diputatuak idatziz emandako erantzuna irakurri du.

*2010eko martxoaren 4an Batzar Nagusietako Mahaiak batzarkide talde-mistoko Arantza Gonzalez Garcia egindako galdera jaso du.*



*Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eskoriatzako Udalak hitzarmenik sinatu edo akordioaren batera iritsi dira Santa Ana komentuko antzinako kaperan erabilera askotako areto bat egiteko?*

*Aldundiari hiru aldiz jakinarazi zaizkio Eskoriatzako Udalak Santa Ana komentuari buruz dituen asmoak. Erakunde bien arteko azken harremana 2010/02/24an izan zen, eta orduan Alkateak erabilera askotako Santa Ana aretoko oinarrizko proiektuaren kopia bat eman zigun. Aldundiak egoera ekonomiko orokorra dela-eta bere kezka agertu eta une bakotzeko errekursoen arabera proiektuan laguntzeko bere asmoa erakutsi zuen, 08/C/05/1183 espedienteean erantzun zuen bezala; eta horrekin batera, Udal ordezkaritzari eskatu zion finantza plana eta inbertsioen egutegia egiteko. Informazio hori ez dugu jaso oraindik.*

*Gipuzkoako Foru Aldundiak hartu al du konpromiso ekonomikorik aipatutako erabilera askotako aretoa egiteko? Horrela bada, zenbatekoa?*

*Gipuzkoako Foru Aldundiak Santa Ana erabilera askoko aretoaren finantza plana eta inbertsio egutegia egiteko eskatu zuen. Ez da inolako konpromisorik hartu ez dugulako izan behar besteko informaziorik.*

Alkate jaunak berariaz eskatu du aktan jartzea bertaratutako zinegotzi guztien nahia dela 2. fasea egiteko Gipuzkoako Aldundiaren laguntza ekonomikoa izatea.

Hemen jasotako parte hartzeetan gain beste batzuk ere izan dira, baina, udalbatzarrak berak 2010eko urtarrilaren 27an hartutako erabakia betez ez dira aktan jaso.

Eztabaida amaituta bozketa egin da, eta 2 abstentzioekin (Urrutia jauna eta Leceta jauna) eta bertaratutako gainontzko udalbatzarkideen aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau erabaki du:

**Lehenengoa**.- Aipatutako proiektuan aurreikusitako obrak kontratatzeko espedientea hastea eta espedientea presaz izapidetu beharrekotzat deklaratzea Sektore Publikoko Kontratueng Legeko 96 eta 128 artikuluetan aurreikusitako ondorioetarako.

**Bigarrena**.- Kontratua prozedura mugatuaz esleitzea, horretarako deialdia 399.299,56 €-ko kontratazio aurrekontuarekin egitea, eta gastua 0401.622.451.91.01 partidaren kontura baimentzea.

**Hirugarrena**.- Kontratua arautuko duen administrazio baldintza partikularren agiria onartzea.

**Laugarrena**.- Esleipen prozedurari hasiera emateko, lizitazioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Kontratugilearen eskakizunetan argitaratzea.

**Bosgarrena**: Sektore Publikoko Kontratueng Legeko 295. artikuluan eta HAKLEOko 79. artikuluan ezarritakoa betez, Kontratazio Mahaiko kide izendatzea honako hauek:



- Lehendakaria: Pedro Lasagabaster Armendariz
- Batzordekideak: ZINEGOTZIAK.

Iñaki Pierrugues Barberan  
Aitor Urrutia Orobengoa  
Carmelo Leceta Abásolo  
Juan Luis Merino Sanabria  
Leire Okaranza Ibabe  
Maider Otamendi Tolosa

IDAZKARI-KONTURHARTZAILEA. Edurne Iturbe.

- Idazkaria: María Pilar Belategui Izurrategi. (hitzarekin baina botorik gabe)

Kontratazio Mahairako ondorengo funtzionamendu arauak onartzea:

1. Mahaiko bilkurak baliozkoak izateko quoruma azaroaren 26ko 30/1992 Legean kide anitzeko organoetarako ezarritakoaren arabera arautuko da.
2. Mahaiko erabakiak btoa emateko eskubidea duten bertaratutako kideen gehiengo soilez hartuko dira. Ezingo da inor abstenitu.
3. Mahaiaik egindako bozketetan berdinketarik balego, bozketa berria egingo da, eta berdinketak jarraituko balu, mahaiburuaren kalitatezko botoak erabakiko du.

**Eta beste gairik ez dagoenez, amaitutzat ematen da bilkura hemeretziak eta berrogeita hamar minututan. Eta nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.**



## **1.- RATIFICACION DE LA INCLUSION DE ASUNTO DENTRO DEL ORDEN DEL DÍA.**

En sesión plenaria de fecha 27 de enero de 2010 se adoptó el acuerdo de aprobar el Proyecto de “MEJORA Y ACONDICIONAMIENTO DE LA CAPILLA DEL CONVENTO DE SANTA ANA EN ESKORIATZA PARA USOS CULTURALES Y SOCIALES. FASE I.”, redactado por IMB Arquitectos SLP con un presupuesto de 344.223,76 € más 55.075,80 € correspondientes al 16 % de IVA, así como solicitar se autorice la financiación del mismo con cargo al Fondo estatal para el Empleo y la Sostenibilidad Local.

Cursada la solicitud, por Resolución del Secretario del Estado de Cooperación Territorial, de fecha 25 de marzo de 2010, se autorizó la financiación de dicho proyecto con cargo al Fondo estatal para el Empleo y la Sostenibilidad Local.

El artículo 15 del Real-Decreto Ley 13/2009, de 26 de octubre, por el que se crea el Fondo Estatal para el Empleo y la Sostenibilidad, exige que los Ayuntamientos comiencen la licitación de las obras antes de que transcurra el plazo de un mes a contar desde el siguiente al de la publicación en la página Web del Ministerio de Política Territorial de la Resolución de Autorización del Secretario de Estado de Cooperación. Dicha publicación se realizó en fecha 25 de marzo de 2010.

A falta de dictamen de la Comisión Informativa de Hacienda por falta de quórum en la sesión convocada y a los efectos previstos en el art. 82-3 del ROF, el Pleno por unanimidad acuerda:

RATIFICAR la inclusión del asunto que luego se dirá dentro del orden del día de la presente sesión plenaria.

Asunto: *INCOACION DE PROCEDIMIENTO DE CONTRATACION Y APROBACIÓN DEL PLIEGO DE CLÁUSULAS ECONOMICO-ADMINISTRATIVAS PARA CONTRATAR LAS OBRAS CONTEMPLADAS EN EL PROYECTO DE “MEJORA Y ACONDICIONAMIENTO DE LA CAPILLA DEL CONVENTO DE SANTA ANA EN ESKORIATZA PARA USOS CULTURALES Y SOCIALES. FASE I.”*

## **2.- INCOACION DE PROCEDIMIENTO DE CONTRATACION Y APROBACIÓN DEL PLIEGO DE CLÁUSULAS ECONOMICO-ADMINISTRATIVAS PARA CONTRATAR LAS OBRAS CONTEMPLADAS EN EL PROYECTO DE “MEJORA Y ACONDICIONAMIENTO DE LA CAPILLA DEL CONVENTO DE SANTA ANA EN ESKORIATZA PARA USOS CULTURALES Y SOCIALES. FASE I.”**

En sesión plenaria de fecha 27 de enero de 2010 se adoptó el acuerdo de aprobar el Proyecto de “MEJORA Y ACONDICIONAMIENTO DE LA CAPILLA DEL CONVENTO DE SANTA ANA EN ESKORIATZA PARA USOS CULTURALES Y SOCIALES. FASE I.”, redactado por IMB Arquitectos SLP con un presupuesto de 344.223,76 € más 55.075,80 € correspondientes al 16 % de IVA.



Conocido por todos los corporativos presentes el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y concedida la palabra hay un debate en relación a asuntos relacionados con el proyecto..

A continuación se transcriben literalmente las intervenciones de aquellos concejales que así lo han solicitado por facilitar las mismas por escrito:

Sr. Pierrugues:

*El motivo de esta intervención en este punto del Orden del día, guarda relación con el proyecto de "mejora y acondicionamiento de la capilla del convento de Santa Ana en Eskoriatza para usos culturales y sociales; 1ª Fase". Proyecto que va a ser financiado con cargo al Fondo estatal para el empleo y la sostenibilidad local del año 2010.*

*A mi juicio, independientemente de que este proyecto se tramite con esta denominación, este es un buen momento para plantear otro nombre para la nueva sala de usos culturales y sociales que estará ubicada en el antiguo cine o capilla del convento de Santa Ana.*

*La toponimia de un pueblo es un documento escrito día tras día por los lugareños, en el cual, de conformidad con la época cultural en cuestión y utilizando las palabras, los pasadizos históricos, la economía, los oficios tradicionales, las creencias y las costumbres del momento, entre otros recursos, constituyen un reflejo de esa realidad.*

*Los topónimos son parte integrante del patrimonio cultural de un pueblo, y tiene la misma dignidad que los centros ceremoniales, iglesias y conventos coloniales, molinos de harina, y todo tipo de testimonio histórico. Viven en el corazón de la historia, ya sea pasada o la que se construye cada día. Representan muchas imágenes vivas con múltiples facetas.*

*A nadie se le escapa que existen dos formas de entender nuestro pasado reciente: prestar atención a los grandes acontecimientos que marcan las pautas de nuestro tiempo, moldeando a golpe de martille el devenir de la historia o buscar la complicidad en los pequeños detalles que se suceden por razones naturales, creencias, de costumbre o familiares que nos indican, por encima de grandes transformaciones sociales, los sentimientos y el buen hacer de nuestro pueblo.*

*Zaldíbar es un topónimo de Eskoriatza que no se ha transmitido de generación a generación como lo han hecho Olaeta o San Juan –Kale, ni en la tradición escrita ni en la oral. Su significado literal sería “**vega de caballos**”.*

*El puente de Zaldíbar era una de las tres entradas que tenía Eskoriatza cuando era una villa murada por los dos ríos (Deba y Bolibar) y el muro de San Juan Kale que lo acercaban. Estaba en la zona donde hoy es la parada de taxis en la Calle Santa Ana,*



*nombre relacionado con el convento de monjas (mercedarias) allí ubicado. Antes de los siglos XIII y XIV ya tenemos conocimiento de su existencia, cuando comienzan a construirse los puentes sobre los ríos. Y mucho antes de que las monjas bajaran hasta Eskoriatza desde su caserío-convento de Santa Lucia de Lete.*

*Por todas estas razones, quiero proponer a este Pleno Municipal que, en lugar de la denominación del proyecto:"Capilla del convento de Santa Ana en Eskoriatza para usos culturales y sociales", pase a denominarse: "**ZALDIBAR ANTZOKIA**".*

Sr. Urrutia:

*En principio yo tenía 3 preguntas, pero dos de ellas ya han sido respondidas. La tercera es: ¿tiene algún tipo de catalogación esa capilla?*

*(Ninguno de los presentes da respuesta concreta)*

*(sigue) Nosotros estamos por la realización de un espacio que como bien se dice ahí dinamice la vida social de los habitantes del municipio y zonas limítrofes.*

*Pero como ya dijimos en el momento de la votación del Plan E se debería de priorizar en estos momentos de incertidumbre económica otras series de proyectos y de inversiones, sobre todo tendentes a hacer viable la economía municipal en los próximos años y no entrar a grandes inversiones que en el futuro sean una losa más para las arcas municipales.*

*Y máxime cuando ya hay unos equipamientos culturales como el propio museo infrautilizado y sin proyecto mínimo a nuestro entender o la casa de cultura y no disponemos de una valoración técnica de las necesidades reales.*

*O cuando las fases sucesivas de este proyecto están sin concretar. Puestos en contacto con la Diputación nos dicen: que no hay nada atado, dudando hasta la posibilidad de poder atarlo; que se pidieron unos informe económicos que no se han remitido; que de todo esto son sabedores y conocedores el Alcalde y el Concejal de Cultura, por lo menos desde el tiempo de la toma de decisión cuando el plan estatal.*

Sr. Merino: (lee el escrito de respuesta remitido por la Diputada Foral del Departamento de Cultura en relación con la sala multiusos Santa Ana de Eskoriatza ante la solicitud de información escrita formulada por la juntera del "grupo juntero mixto Ezker Batua-Berdeak" Arantza González García.



*Con fecha de 4 de marzo de 2010 la Mesa de la Juntas Generales ha recibido una pregunta realizada por Arantza González García del Grupo Juntero Mixto.*

*¿La Diputación de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Eskoriatza han suscrito algún convenio o han llegado a algún acuerdo para la creación de una sala multiusos en la antigua capilla del convento de Santa Ana?*

*La Diputación ha sido informada en tres ocasiones sobre las intenciones del Ayuntamiento de Eskoriatza entorno al convento Santa Ana. En el último contacto del 24/02/2010 entre representantes de las dos instituciones, el Alcalde entregó una copia del proyecto básico del equipamiento multiusos Santa Ana. La Diputación mostró tanto su preocupación ante la situación económica global así como su intención de colaborar en el proyecto en función de los recursos disponibles en el momento, tal y como se respondió en el exp. 08/C/05/1183 y a su vez, solicitó a la representación del Ayuntamiento la redacción del plan financiero y calendario de inversiones, información que no ha sido recibida hasta la fecha.*

*¿La Diputación de Gipuzkoa ha adoptado algún compromiso económico para la creación de la citada sala multiusos? En caso afirmativo ¿a cuánto asciende?*

*La Diputación Foral de Gipuzkoa solicitó la redacción del plan financiero y calendario de inversiones del equipamiento multiusos Santa Ana. No ha sido posible adoptar ningún compromiso al no contar con información suficiente.*

El Sr. Alcalde solicita de forma expresa que conste en acta la voluntad de todos los corporativos presentes de que para ejecutar la 2<sup>a</sup> fase se disponga con el apoyo económico de la Diputación de Gipuzkoa.

Además de las transcritas se producen otra serie de intervenciones que no se hacen constar en acta en cumplimiento del acuerdo adoptado por la propia corporación en sesión de fecha 27 de enero de 2010

Terminado el debate se procede a la votación, y con el resultado de 2 abstenciones (Sr. Urrutia y Sr. Leceta) y el voto a favor del resto de los corporativos asistentes, el Pleno acuerda:

**Primero:** Incoar expediente de contratación de las obras contempladas en dicho proyecto; declarando la tramitación urgente del expediente de contratación con los efectos previstos en los artículos 96 y 128 de Ley de Contratos del Sector Público

**Segundo:** Adjudicar el contrato por la forma de procedimiento restringido, quedando convocado el mismo por un presupuesto de contratación de 399.299,56 €; y autorizando el gasto con cargo a la partida 0401.622.451.91.01 .

**Tercero:** Aprobar el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares que habrá de regir el contrato.



**Cuarto:** Disponer la apertura del procedimiento de adjudicación anunciado la licitación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa y en el Perfil del Contratante.

**Quinto:** En cumplimiento de lo previsto en los arts. 295 de la LCSP y 79 del RGLCAP, nombrar miembros de la Mesa de Contratación a los siguientes:

- Presidente: Pedro Lasagabaster Armendariz.

- Vocales: CORPORATIVOS:

Iñaki Pierrugues Barberán

Aitor Urrutia Orobengoa

Carmelo Leceta Abásolo

Juan Luis Merino Sanabria

Leire Okaranza Ibabe

Maider Otamendi Tolosa

SECRETARIA-INTERVENTORA. Edurne Iturbe.

- Secretaria: María Pilar Belategui Izurrategi. (con voz y sin voto)

Aprobar las siguientes reglas de funcionamiento de la Mesa de Contratación:

- 1<sup>a</sup>. El quórum para la válida celebración de las sesiones de la Mesa, se regirá por lo dispuesto en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, para los órganos colegiados.
- 2<sup>a</sup>. La Mesa adoptará sus decisiones por mayoría simple de los miembros presentes con derecho a voto y no cabrá la abstención.
- 3<sup>a</sup>. En caso de empate en las votaciones que realice la Mesa, se efectuará una nueva votación y si persistiera el empate, decidirá el voto de calidad del Presidente.

**Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las diecinueve horas y cincuenta minutos. De todo lo cual como Secretaria doy fe.**